

# Bizkaiko enpresa egoeraren barometroa

2024KO MAIATZA

 **Bizkaia**  
beaz

 **Bizkaia**  
foru aldundia  
diputación foral

## Atarikoa

**“Bizkaiko enpresa egoeraren barometroa” Beazek garatu du, Bizkaiko Foru Aldundiaren Ekonomia Sustapen sailari atxikitako sozietate publikoak, lurraldeko enpresen lehiakortasuna sustatu, garatu eta bultzatzeko.**

Azterlan horren helburu nagusia Bizkaiko enpresek bizi duten errealitatea aztertzea da, arreta berezia jarrita 2023 ekitaldiko amaieran duten posizionamenduan, uneko egoeraren inguruan duten ikuspegian eta 2024ko lehen seihilekoan izango duten bilakaeraren aurreikuspenean.

Helburu hori planteamendu metodologiko kuantitatibo batetik joratu da eta, horretarako, **512 enpresa** elkarrizketatu dira, horietako **402 “Beazkide”** izanik, hau da, **Beazek eskaintzen dituen programa edo zerbitzuetako baten esparru barruan jarraipena edo laguntza jasotzen dutenak**. Gainerako 110 enpresak ez dira Beazek kudeatzen dituen laguntza lerroen onuradun izan momentuz, eta horregatik izendatu dira “Ez Beazkide”.

Landa lana 2024ko otsailaren 21etik apirilaren 18ra egin da.

512 enpresa hauen errealitatera hurbiltzeko ahalegin horretatik atera den informazioaren analisiaren ondorioak, txosten honen oinarri izateaz gain, Beazek enpresa bakoitzari eskaintzen dion tutoretza zerbitzua hobetzeko erabiliko dira, batez ere gomendatuko den laguntza ibilbidea pertsonalizatzeko.

# Aurkibidea

## 1. Planteamendu metodologikoa

- 1.1. Ikerketaren helburuak
- 1.2. Fitxa teknikoa

## 2. Ikerketaren emaitzak

- 2.1. Enpresa elkarrizketatuen profila
- 2.2. Gaur egungo egoera ekonomikoa
- 2.3. 2023 amaierako datuak
- 2.4. 2024ko lehen sei hilekorako aurreikuspenak
- 2.5. Enpresen kezka nagusiak

## 3. Ondorioak

# Planteamendu metodologikoa

## 1

- 1.1. Ikerketaren helburuak
- 1.2. Fitxa teknikoa

## 1.1. Ikerketaren helburuak

Helburu nagusia >



**Bizkaiko enpresen merkatuaren egoera identifikatzea, bai eta enpresa horiek 2024rako dituzten itxaropen eta aurreikuspen komertzialak eta ekonomikoak ere.**

Helburu espezifikoak >



**Enpresen merkatuaren egoera aztertzea.**

**Bizkaiko enpresen kezkak zeintzuk diren identifikatzea.**

**Epe labur eta ertainerako aurreikuspenak neurtzea.**

**Proiektu berriak dituzten eragozpen eta zailtasunak ezagutzea.**

## 1. Planteamendu metodologikoa

## 1.2. Fitxa teknikoa

Azterlan mota:

Kuantitatiboa

Baliatutako teknika:

Internet bidezko elkarrizketa  
telefonoaren laguntzarekin (CATI)


Analisiaren unibertsoa:

Sektore jakinetako 5 eta  
100 langile arteko Bizkaiko  
enpresak.

Landa lanak egitea:

Otsailaren 21etik apirilaren 18ra

Planteamendu metodologikoaren xehetasunak eta justifikazio estatistikoa



LAGIN OSORAKO  
ERRORE MARJINA  
**±% 2,84\***  
IZANDA

\*% 95'5eko konfiantza maila  
lortzeko, 2Σ.

## Ikerketaren emaitzak

# 2

- 2.1. Enpresa elkarrizketatuen profila
- 2.2. Gaur egungo egoera ekonomikoa
- 2.3. 2023 amaierako datuak
- 2.4. 2024ko lehen sei hilekorako aurreikuspenak
- 2.5. Enpresen kezka nagusiak

Bizkaiko enpresa egoeraren barometroa

## 2.1. Enpresa elkarrizketatuen profila



### ENPRESAREN TAMAINA

5 eta 10 artekoa % 25

11 eta 20 artekoa % 23

21 eta 50 artekoa % 33

51 eta 250 artekoa % 17

250etik gorakoa\* % 3



### ENRPESAREN ANTZINATASUNA

0 eta 4 urte artekoa % 3

5 eta 8 urte artekoa % 14

9 eta 12 urte artekoa % 9

13 eta 16 urte artekoa % 7

17 eta 19 urte artekoa % 6

20 urte edo gehiagokoa % 61



### URTEKO FAKTURAZIOA

1m € behera % 22

1m € eta 3m € artean % 33

3m € eta 7m € artean % 18

7m € eta 15m € artean % 12

15m € eta 40m € artean % 10

40 m € eta gehiago % 4

Ed/Ee % 1



### ENPRESAREN SEKTOREA

Industria % 47

Jarduera profesional, zientifiko eta teknikoak % 15

Merkataritza % 11

Informazioa eta komunikazioak % 10

Eraikuntza % 6

Garraioa % 3

Osasun jarduerak eta gizarte zerbitzuetakoak % 3

Bete batzuk % 5




## 2.2. Gaur egungo egoera ekonomikoa

### ENPRESAREN MERKATUAREN EGOERA



NOLA IKUSTEN DUZUE ZUEN ENPRESA JARDUERAREN MERKATUA?

Oinarria: Enpresa elkarrizketatu guztiak.



## 2.2. Gaur egungo egoera ekonomikoa

## ENPRESAREN MERKATUAREN EGOERA



NOLA IKUSTEN DUZUE ZUEN ENPRESA JARDUERAREN MERKATUA?

Oinarria: Enpresa elkarrizketatu guztiak.

	GUZTIRA	ENPRESAREN TAMAINA					BEAZKIDE		ENPRESAREN SEKTOREA							
		5 eta 10 artekoa	11 eta 20 artekoa	21 eta 50 artekoa	51 eta 250 artekoa	250etik gorakoa*	Bai	Ez	Industria	Eraikuntza*	Merkataritza	Garraiola*	Informazioa eta komunikazioak	Jarduera profesional, zientifiko eta teknikoak	Osasun jarduerak eta gizarite zerbitzuetakoak*	Bete batzuk
Hazten edo suspertzen ari den merkatua da	<b>% 57</b>	% 57	% 60	% 53	% 59	% 67	% 59	<b>% 47</b>	<b>% 45</b>	% 52	<b>% 48</b>	% 59	% 78	% 75	% 83	% 81
Merkatu egonkorra da	<b>% 34</b>	% 32	% 34	% 36	% 34	% 33	% 33	% 40	% 43	% 42	% 45	% 27	<b>% 13</b>	% 21	<b>% 12</b>	% 19
Atzera doan merkatua da	<b>% 7</b>	% 9	% 5	% 10	% 4		% 6	% 11	% 11	% 2	% 6	% 14	% 6	% 1	% 5	
Ed/Ee	<b>% 2</b>	% 2	% 1	% 1	% 3		% 2	% 2	% 1	% 3	% 1		% 2	% 3		

\* Laginaren oinarri oso mugatua. Datuak kontuz azertu behar dira.

**■** Gorritz adierazi ditugu kolektiboen arteko beheko aldeak.

**■** Berdez adierazi ditugu kolektiboen arteko goiko aldeak.


## 2.2. Gaur egungo egoera ekonomikoa

### SEKTOREAREN TIPOLOGIA



NOLAKOA DA ZUEN ENPRESAREN SEKTOREA?

Oinarria: Enpresa elkarriketatu guztiak.



## 2.2. Gaur egungo egoera ekonomikoa


### ENPRESAREN LEHIA MERKATU NAZIONALEAN / NAZIOARTEKOAN



NOLA DEFINITUKO ZENUKE MERKATU NAZIONALEAN DUZUEN LEHIA?


NOLA DEFINITUKO ZENUKE NAZIOARTEKO MERKATUAN DUZUEN LEHIA?

Oinarria: Enpresa elkarrizketatu guztiak.



## 2.3. 2023 amaierako datuak


### GUZTIZKO SALMENTEN BILAKAERA: 2023 VS 2022



2022 EKITALDI AMAIERAKO DATUEKIN ALDERATUTA, 2023 EKITALDIKO GUZTIZKO SALMENTAK...

Oinarria: Enpresa elkarrizketatu guztiak.

**BALANTZEA**  
Hazi dira / Behera egin dute



**BALANTZEA (% 65 - % 14 = +% 52)**

## 2.3. 2023 amaierako datuak

### GUZTIZKO SALMENTEN BILAKAERA: 2023 VS 2022



2022 EKITALDI AMAIERAKO DATUEKIN ALDERATUTA, 2023 EKITALDIKO GUZTIZKO SALMENTAK...

Oinarria: Enpresa elkarrizketatu guztiak.


BALANTZEA: Hazi dira / Behera egin dute

**+% 52**

+% 45   +% 54   +% 47   +% 64   +% 67   |   +% 52   +% 49   |   +% 49   +% 51   +% 37   +% 64   +% 78   +% 53   +% 70   +% 34


- Ed/Ee
- Behera egin dute
- Mantendu egin dira
- Hazi dira

\* Laginaren oinari oso mugatua. Datuak kontuz aztertu behar dira.



## 2.3. 2023 amaierako datuak


### MARJINA EKONOMIKOEN BILAKAERA: 2023 VS 2022



2022 AMAIERAKO MAILAREKIN ALDERATUTA, 2023 EKITALDIKO SALMENTEN GAINKO MARJINA EKONOMIKOAK...

Oinarria: Enpresa elkarrizketatu guztiak.

**BALANTZEA**  
Hazi dira / Behera egin dute



**BALANTZEA (% 35 - % 24 = +% 11)**

## 2.3. 2023 amaierako datuak

### MARJINA EKONOMIKOEN MURRIZKETAREN ARRAZOIAK

**% 14**

Marjina ekonomikoak murriztu dituzten enpresak

**% 54**

PREZIOAK/ KOSTUAK


**1,3**

ENPRESA HORNITZAILEEN BATEZ BESTEKO KOPURUA



ZERGATIK MURRIZTU ZAIZKIZUE SALMENTEN GAINEKO MARJINA EKONOMIKOAK 2023AN?


Oinarria: Enpresa elkarrizketatu guztiak.





## 2.3. 2023 amaierako datuak


### ESKARI BAIEZTATUEN BILAKAERA: 2023 VS 2022



2022 AMAIERAKO MAILAREKIN ALDERATUTA, 2023AN BAIEZTATUTAKO ESKARIAK...

Oinarria: Enpresa elkarrizketatu guztiak.

**BALANTZEA**  
Hazi dira / Behera egin dute




**BALANTZEA (% 53 - % 11 = +% 42)**

## 2.3. 2023 amaierako datuak

### ENPLEGU MAILAREN BILAKAERA: 2023 VS 2022

**% 50**  
Hazi dira



**% 9**  
Behera egin dute

**% 41**  
Mantendu egin dira




2022 AMAIERAKO MAILAREKIN ALDERATUTA, 2023 EKITALDI AMAIERAN ENPLEGU MAILA...

Oinarria: Enpresa elkarrizketatu guztiak.

#### BALANTZEA

Hazi dira / Behera egin dute




BALANTZEA (% 50 - % 9 = +% 41)



## 2.3. 2023 amaierako datuak

### ENPRESAREN EKOIZPEN GAITASUNAREN ERABILERA




BAIEZKO ERANTZUNA



2023 EKITALDIAN ZEHAR, ENPRESAREN EKOIZPEN GAITASUN OSOA ERABILI DA?



Oinarria: Enpresa elkarrizketatu guztiak.



\* Laginaren oinarri oso mugatua. Datuak kontuz aztertu behar dira.

## 2.3. 2023 amaierako datuak


### ERABILITAKO EKOIZPEN GAITASUNAREN %



### ZEIN IZAN DA ERABILITAKO EKOIZPEN GAITASUNA?


Oinarria:  
2023an zehar enpresaren gaitasun osoa erabili ez dutenak.

### GUZTIZKO OINARRIAREN GAINEAN



## 2.3. 2023 amaierako datuak

### 2023AN EGINDAKO INBERTSIOAK




BAIEZKO ERANTZUNA



### 2023 EKITALDIAN INBERTSIOREN BAT EGIN AL DA?


Oinarria: Enpresa elkarrizketatu guztiak.



\* Laginaren oinarri oso mugatua. Datuak kontuz aztertu behar dira.


## 2.3. 2023 amaierako datuak

### EGINDAKO INBERTSIO MOTAK



### ZER NOLAKO INBERTSIOAK EGIN DIRA?

Oinarria: Inbertsioren bat egin dutenak.




PRODUKTUEN  
BATEZ BESTEKO  
KOPURUA

2,5

## 2.3. 2023 amaierako datuak

### 2023KO BERRIKUNTZA PROIEKTUAK




BAIEZKO ERANTZUNA



### 2023 EKITALDIAN BERRIKUNTZA PROIEKTUAK ABIAN JARRI AL DIRA?

Oinarria: Enpresa elkarrizketatu guztiak.




\* Laginaren oinarri oso mugatua. Datuak kontuz aztertu behar dira.




## 2.3. 2023 amaierako datuak

### 2023KO BERRIKUNTZA PROIEKTU MOTAK



#### ZER NOLAKO BERRIKUNTZA PROIEKTUAK JARRI DIRA ABIAN 2023AN?

Oinarria: 2023an berrikuntza proiektuak abian jarri dituztenak.




BERRIKUNTZA  
PROIEKTUEN BATEZ  
BESTEKO KOPURUA

2,4

## 2.3. 2023 amaierako datuak

### 2023AN EGINDAKO NAZIOARTEKOTZE EKINTZAK




BAIEZKO ERANTZUNA



2023AN NAZIOARTEKOTZE EKINTZA BERRIAK GAUZATU DIRA?


Oinarria: Enpresa elkarrizketatu guztiak.



\* Laginaren oinarri oso mugatua. Datuak kontuz aztertu behar dira.

## 2.3. 2023 amaierako datuak

### NAZIOARTEKOTZE EKIMEN MOTAK



Estrategia sendotzea eta ekintza berriak lehendik presentzia zegoen merkatu geografikoetan

**% 67**

Herralde edo merkatu geografiko berri batera sartzea

**% 63**




#### ZER NOLAKO NAZIOARTEKOTZE EKIMENAK EGIN DIRA?

Oinarria: 2023an nazioartekotze ekintzak gauzatu dituztenak.


## 2.3. 2023 amaierako datuak

### GARATUTAKO EKINTZAK



### ZER NOLAKO EKINTZAK GARATU DIRA?

Oinarria: 2023an nazioartekotze ekintzak gauzatu dituztenak.




NAZIOARTEKOTZE  
EKINTZEN BATEZ BESTEKO  
KOPURUA

1,7

## 2.3. 2023 amaierako datuak

### ENPRESA ETA/EDO ERAKUNDEAREN KULTURA HOBETZEKO PROIEKTUEN ABIARAZTEA




BAIEZKO ERANTZUNA



2023 EKITALDIAN ENPRESA ETA/EDO ERAKUNDEAREN KULTURA HOBETZEKO PROIEKTUREN BAT ABIAN JARRI AL DA ERAKUNDEKO PERTSONEN MOTIBAZIOA, INPLIKAZIOA EDO LEIALTASUNA SENDOTZEKO HELBURUAREKIN?


Oinarria: Enpresa elkarrizketatu guztiak.



\* Laginaren oinarri oso mugatua. Datuak kontuz aztertu behar dira.


## 2.3. 2023 amaierako datuak

### PROIEKTUETARAKO BALIATUTAKO FINANTZAKETA




#### ZER NOLAKO FINANTZAKETA BALIATU DA PROIEKTU HORIEK GARATZEKO?

Oinarria: Berrikuntza proiektu, inbertsio edo nazioartekotzeren bat garatu dutenak.



## 2.3. 2023 amaierako datuak

### PROIEKTUETARAKO ERABILITAKO DIRULAGUNTZA



Enpresek, batez beste, **bi dirulaguntza mota erabili dituzte** nazioartekotze proiektuetarako.

**Dirulaguntza ohikoenak bestelako berrikuntza proiektuetarako** emandakoak dira, **digitalizazio proiektuen** ingurukoekin batera.

**% 22k nazioartekotze dirulaguntzak erabili ditu espezifiki.**




### ZER NOLAKO DIRULAGUNTZAK ERABILI DIRA?

Oinarria: Dirulaguntzaren bat erabili dutenak.



## 2.4. 2024ko lehen seihiilekorako aurreikuspenak


### SALMENTA AURREIKUSPENAK: 1S 2024 VS 1S 2023



2024KO LEHEN SEIHILEKOKO SALMENTAK, 2023KO LEHEN SEIHILEKOKOEKIN ALDERATUTA, AURREIKUSI DIRA...

Oinarria: Enpresa elkarrizketatu guztiak.

**BALANTZEA**  
Handiagoak / Txikiagoak



**BALANTZEA (% 35 - % 18 = +% 17)**



## 2.4. 2024ko lehen seihiilekorako aurreikuspenak

### SALMENTA AURREIKUSPENAK: 1S 2024 VS 1S 2023




2024KO LEHEN SEIHILEKOKO SALMENTAK, 2023KO LEHEN SEIHILEKOKOekin ALDERATUTA, AURREIKUSI DIRA...

Oinarria: Enpresa elkarrizketatu guztiak.

BALANTZEA: Handiagoak / Txikiagoak

**+% 17**


+% 8   +% 23   +% 16   +% 19   +% 67   |   +% 21   +% 3   |   +% 9   +% 19   +% 9   **-% 4**   +% 40   +% 31   +% 36   +% 20



\* Laginaren oinari oso mugatua. Datuak kontuz aztertu behar dira.

## 2.4. 2024ko lehen seihiilekorako aurreikuspenak


### MARJINA EKONOMIKOEN AURREIKUSPENA: LEHEN SEIHILEKOA 2024 VS LEHEN SEIHILEKOA 2023



2024KO LEHEN SEIHILEKOKO MARJINA EKONOMIKOAK,  
2023KO LEHEN SEIHILEKOKOekin alderatuta,  
AURREIKUSI DIRA...


Oinarria: Enpresa elkarrizketatu guztiak.

**BALANTZEA**  
Handiagoak / Txikiagoak



## 2.4. 2024ko lehen seihiilekorako aurreikuspenak


### ENPLEGU MAILAREN AURREIKUSPENAK: 1S 2024 VS 1S 2023



NOLAKO ENPLEGU MAILA AURREIKUSI DA 2024 LEHEN SEIHILEKORAKO, 2023KO LEHEN SEIHILEKOAREKIN ALDERATUTA?

Oinarria: Enpresa elkarrizketatu guztiak.

**BALANTZEA**  
Handiagoak / Txikiagoak



**BALANTZEA (% 22 - % 7 = +% 15)**


## 2.4. 2024ko lehen seihilekorako aurreikuspenak

### SARTUKO DIREN PROFIL MOTEN AURREIKUSPENAK






ZER NOLAKO LANGILE PROFILAK SARTZEA AURREIKUSI DA 2024KO LEHEN SEIHILEKOAN?

Oinarria: Enpresa elkarrizketatu guztiak.




## 2.4. 2024ko lehen seihilekorako aurreikuspenak

### 2024KO LEHEN SEIHILEKORAKO AURREIKUSI DA/DIRA...




Proiektu motaren bat (inbertsioa, berrikuntza edo nazioartekotzea) egitea aurreikusi da

>>>>>>>> % 63




## 2.4. 2024ko lehen seihilekorako aurreikuspenak

### 2024KO LEHEN SEHILEKOAN PROIEKTUREN BATEAN INBERTIZEKO AURREIKUSPENAK



2024KO LEHEN SEHILEKOAN INBERTSIO PROIEKTUREN BAT HASTE AURREIKUSI DA?


Oinarria: Enpresa elkarrizketatu guztiak.



\* Laginaren oinarri oso mugatua. Datuak kontuz aztertu behar dira.


## 2.4. 2024ko lehen sei hilabeterako aurreikuspenak

### INBERTSIO MOTAK




### ZER NOLAKO INBERTSIOA?

Oinarria: Inbertsioren bat hasiko dutenak.




## 2.4. 2024ko lehen seihilekorako aurreikuspenak

### 2024KO LEHEN SEHILEKOAN BERRIKUNTZA PROIEKTUREN BAT HASTEKO AURREIKUSPENAK



2024KO LEHEN SEHILEKOAN BERRIKUNTZA PROIEKTUREN BAT HASTEKO AURREIKUSI DA?

Oinarria: Enpresa elkarrizketatu guztiak.




\* Laginaren oinarri oso mugatua. Datuak kontuz aztertu behar dira.




## 2.4. 2024ko lehen sei hilekorako aurreikuspenak

### BERRIKUNTZA PROIEKTU MOTAK



### ZER NOLAKO BERRIKUNTZA PROIEKTUA?


Oinarria: Berrikuntza proiekturen bat hasiko dutenak.



PROIEKTUEN BATEZ BESTEKO KOPURUA  
**2,0**


## 2.4. 2024ko lehen seihilekorako aurreikuspenak

### 2024KO LEHEN SEHILEKOAN NAZIOARTEKOTZE EKIMENEN BAT HASTEKO AURREIKUSPENAK



2024KO LEHEN SEHILEKOAN NAZIOARTEKOTZE EKIMENEN BAT HASTEKO AURREIKUSI DA?



Oinarria: Nazioartekotze ekimenen bat hasiko dutenak.



\* Laginaren oinarri oso mugatua. Datuak kontuz aztertu behar dira.


## 2.4. 2024ko lehen sei hilekorako aurreikuspenak

### NAZIOARTEKOTZE PROIEKTUA HASTEKO AURREIKUSITAKO HERRIALDEA



### ZEIN HELMUGAKO HERRIALDE EDO ESKUALDETAN AURREIKUSI DA NAZIOARTEKOTZE EKIMEN HORI(EK) GARATZEA?

Oinarria: Nazioartekotze ekimenen bat hasiko dutenak.




Enpresek aukera anitzekin erantzun dute, nazioartekotze proiektuak garatzeko herrialde edo eskualde bat baino gehiago identifikatuz.

**Nazioartekotze proiektu gehienak Europako herrialdeetan garatzea aurreikusi da.**

## 2.4. 2024ko lehen sei hilabeterako aurreikuspenak


### NAZIOARTEKOTZE EKINTZA MOTAK

#### NAZIOARTEKOTZEA



#### ZEIN EKINTZA GARATZEA AURREIKUSI DA?

Base: Quienes iniciarán alguna iniciativa de internacionalización.



NAZIOARTEKOTZE EKINTZEN BATEZ BESTEKO KOPURUA


2,0

## 2.4. 2024ko lehen sei hilekorako aurreikuspenak

### FINANTZEKTA MOTA

**% 63**

Proiekturen bat aurrera eramatea aurreikusten duten enpresen artean, ondoko finantzazio iturriak adierazten dituzte



### ZER NOLAKO FINANTZAKETA ERABILITZEA AURREIKUSI DA ... PROIEKTU HORIEK GARATZEKO?

Oinarria: Inbertsio, berrikuntza edo nazioartekotze proiekturen bat egitea aurreikusi dutenak.

### GUZTIZKO OINARRIAREN GAINEAN

**% 55**

NORBERAREN BALIABIDEAK

**% 36**

DIRULAGUNTZAK

**% 19**

BANKUAREN FINANTZAKETA

**% 4**

ABAL EDO MAILEGU PUBLIKOAK

**% 3**

KAPITALA HANDITZEA

Enpresek, aukeratzeko asmoa duten finantzaketa-iturri mota guztiak identifikatzen dituzte, beraz kasu gehienetan beren proiektuetarako kofinantzaketa estrategia bat planteatzen dute.

## 2.4. 2024ko lehen sei hilabeterako aurreikuspenak

### DIRULAGUNTZA MOTAK




**Gehien aurreikusi diren** dirulaguntzak produktu / zerbitzu / prozesu / merkatu / erakundearekin lotutako **bestelako berrikuntza proiektuetarako dirulaguntzak** dira.

\*25.G galderan dirulaguntzaren bat erabiliiko dutela adierazi duten % 58tik kalkulatu da, elkarrizketatutako pertsona guztien gainean.



### ZER NOLAKO DIRULAGUNTZAK ERABILTZEA AURREIKUSI DA?


Oinarria: Dirulaguntzak erabiltzea aurreikusi dutenak.



## 2.4. 2024ko lehen seihilekorako aurreikuspenak

### 2024KO LEHEN SEHILEKOAN ENRPESA KULTURA HOBETZEKO EKIMENAK ABIARAZTEKO AURREIKUSPENAK

#### ENPRESA ETA/EDO ERAKUNDEAREN KULTURA




BAIEZKO ERANTZUNA



2024AN ENPRESA ETA/EDO ERAKUNDEAREN KULTURA HOBETZEKO EKIMENEN BAT ABIARAZTEA AURREIKUSI DA ERAKUNDEKO PERTSONEN MOTIBAZIOA, INPLIKAZIOA EDO LEIALTASUNA SENDOTZEKO HELBURUAREKIN?


Oinarria: Enpresa elkarrizketatu guztiak.



\* Laginaren oinarri oso mugatua. Datuak kontuz aztertu behar dira.


## 2.4. 2024ko lehen sei hilekorako aurreikuspenak

### AZKEN BATEAN, 2024KO LEHEN SEIHILEKORAKO AURREIKUSI DA/DIRA...




Proiektu motaren bat (inbertsioa, berrikuntza edo nazioartekotzea) egitea aurreikusi da

**% 63**



Eta, oro har, hobetzeko proiektu edo ekintzaren bat egitea aurreikusi da...


**% 72**





## 2.5. Enpresen kezka nagusiak

### ERAKARTZEKO ETA KONTRATATZEKO ARAZOAK




BAIEZKO ERANTZUNA



2024 EKITALDIAN, LANGILE PROFIL ESPEZIFIKOAK ERAKARTZEKO ETA KONTRATATZEKO ARAZORIK IZAN DUZUE?


Oinarria: Enpresa elkarrizketatu guztiak.



\* Laginaren oinarri oso mugatua. Datuak kontuz aztertu behar dira.

## 2.5. Enpresen kezka nagusiak

### LANGILEAK MANTENDU ETA FIDELIZATZEKO ARAZOAK




BAIEZKO ERANTZUNA



2024 EKITALDIAN, BERE LANGILEAK MANTENDU ETA FIDELIZATZEKO ARAZORIK IZAN AL DU ENPRESAK?


Oinarria: Enpresa elkarrizketatu guztiak.



\* Laginaren oinarri oso mugatua. Datuak kontuz aztertu behar dira.


## 2.5. Enpresen kezka nagusiak

### LANGILEAK MANTENDU ETA FIDELIZATZEKO ARAZOAK



#### ZEIN EDO ZEINTZUK?

Oinarria: Langileak mantendu edo fidelizatzeko arazoak izan dituztenak.




## 2.5. Enpresen kezka nagusiak

### ARAZOAK HORNITZAILEKIN



#### HORNITZAILEEI DAGOKIENEZ...

Oinarria: Enpresa elkarrizketatu guztiak.




## 2.5. Enpresen kezka nagusiak

### ETORKIZUNEKO KEZKAK



ZEINTZUK DIRA ENPRESAREN KEZKA NAGUSIAK 2024RA BEGIRA?

Oinarria: Enpresa elkarrizketatu guztiak.



**% 82**  
LANEKO ALDERDIAK


**% 80**  
ALDERDI FINANTZARIOAK

**% 73**  
ALDERDI OPERATIBO ETA LOGISTIKOAK


# ONDORIOAK

# 3


“Bizkaiko enpresa egoeraren barometroak” honako hau dio uneko egoera ekonomikoaren pertzepzioari buruz:



- Enpresa elkarrizketatuen **% 57k** uste dute beren **merkatua suspertze eta hazkunde fasean dagoela.**



- Enpresen **% 7k** bakarrik uste dute **atzera doan merkatu** batean jarduten ari direla.



- Enpresen **% 71k** diote **merkatu berritzaile** batean ari direla. Horrez gain, bi herenek uste dute beren lehiakideek gaitasun espezializatuak dituztela, bai estatu mailan eta baita nazioarteko esparruan ere. Horrek esan nahi du Bizkaiko enpresak **etengabeko hobekuntzaren eta berrikuntzaren kultura aplikatzera behartuta daudela lehiakor izaten jarraitu nahi badute.**

**2023 ekitaldi amaierako datuei dagokienez, 2022ko emaitzekin alderatuta, puntu hauek nabarmendu dira:**

- 2023an salmentek oso bilakaera ona izan dute 2022an lortutako atalasearekin alderatuta. Enpresa elkarrizketatuen % 65ek diote salmentek gora egin dutela. Aipatu behar da, gainera, salmenten hazkundera izan duten enpresen artean, % 39k adierazi dutela areagotzea % 15etik gorakoa izan dela.
- Marjina ekonomikoaren bilakaera aztertuta, enpresen % 35ek marjinak hobetu egin dituzte 2023an, eta % 40k 2022ko maila berean mantendu dituzte.
- Lehengaien prezioen areagotzea, inflazioa edo laneko kostuen goranzko joera izan dira enpresen marjina ekonomikoak hobetzeko oztopo nagusiak.
- Enpresa elkarrizketatuen enplegu mailak bilakaera positiboa izan du 2022. urtearekin alderatuta. % 50ak dio enpleguak gora egin duela 2023 ekitaldian, eta % 40ak 2022an lortutako antzeko enplegu mailan mantendu dela.
- Hamar enpresatik seik diote beren ekoizpen gaitasunaren % 100 erabili dutela 2023an.
- Enpresen % 66k nolabaiteko inbertsioa egin dute 2023an, batez ere sektore industrialekin lotura dutenen artean. Inbertsio horiek makinaren edo enpresen eraldaketa digitalarekin lotutako elementuen inguruan egin dira, batik bat.
- 2023an inbertsio proiektuak egin dituzten enpresen % 71k diote Bizkaiko lurraldeko enpresak izan dituztela hornitzaileen artean.
- Enpresen bi herenek berrikuntza proiektuak gauzatu dituzte 2023an, batez ere produktu eta zerbitzu berriak garatzeko.
- Enpresen % 34k nazioartekotze ekintza berriak jarri dituzte abian 2023 ekitaldian, bereziki merkataritza misioetan eta erreferentziako azoketan parte hartzeko.
- % 38k erakundeko pertsonen motibazioa eta inplikazioa sendotzeko ahaleginak egin dituzte, horretarako enpresa edo erakundearen kultura hobetzeko ekimenak martxan jarrita.
- 2023an baliatutako finantzaketa iturriei dagokienez, enpresen portzentaje oso garrantzitsu batek (% 88) baliabide propioak erabili ditu. Gainera, erdiak baino gehiagok dirulaguntza publikoak erabili dituzte, eta heren batek inguru, bankuen finantzaketa.



## 2024ko lehen seihilekorako aurreikuspenei buruzko galderetan, honako hau adierazi dute enpresek:

- Enpresen % 45ek uste dute 2024ko lehen seihilekoko salmentak 2023ko garai bereko salmenten antzekoak izango direla. Eta % 35ek handiagoak izango direla adierazi dute.
- Enpresen % 61en ustez, 2024ko lehen seihilekoko marjina ekonomikoak aurreko ekitaldiko maila berean mantenduko dira, eta % 23k marjinen hobekuntza aurreikusi dute, 2023ko lehen seihilekokoekin alderatuta.
- Enpresa gehienek enplegua mantendu egingo dela aurreikusi dute, baina elkarrizketatuen % 22k enplegua haztea espero dute lehen seihilekoan zehar.
- Ekitaldi honetako lehen seihilekoan profil berriak sartzeko asmoa adierazi duten enpresek diote profil teknikoak edo berritzaileak izango direla batez ere. Gehien eskatuko den bigarren profil mota langileena izango da, batez ere sektore industrialetako enpresetarako.
- Enpresa elkarrizketatuen erdiak, gutxi gorabehera, inbertsio proiekturen bat egikaritzeko asmoa du 2024ko lehen seihilekoan zehar, batik bat ekoizpen prozesuak hobetzeko makinak eskuratzeko (% 58), edo eraldaketa digitaleko proiektuekin lotutako elementuetarako (softwarea edo hardwarea).
- Enpresen % 46k berrikuntza proiektuak abian jarri nahi dituzte 2024ko lehen seihilekoan, arreta berezia jarrita produktu/zerbitzu berrien garapenean eta gaur egun zorroan dituzten produktu/zerbitzuen hobekuntzan.
- Enpresen laurden batek bakarrik aurreikusi du 2024ko uda aurretik nazioartekotze ekintza berriak garatzea. Horietatik, % 61ek Europako helmugak aipatu dituzte, bereziki Alemania eta Frantziako merkatuak. Misiok eta erreferentziako azoketan parte hartzea dira aukera gogokoena oraindik ere.
- Enpresen egoera ekonomikoari begiratuz, nahikoa kaudimen dutela dirudi; izan ere, enpresa elkarrizketatuen % 87k diote beren proiektuak finantzatzeko nahikoa baliabide propio dituztela, dirulaguntza publiko eta/edo bankuaren finantzaketa gehigarriren batekin konbinatzen badira.
- Talentua erakarri eta fidelizatzearen inguruko ardur nabarmena da. Enpresen % 37k diote enpresa edo erakundearen kultura hobetzeko ekimenen bat egingo dutela 2024ko lehen sei hilabeteetan.

Azken buruan,

**hazkunde iraunkorreko egoera** batean daudela jakinarazi dute enpresek. Enpresa elkarrizketatuen laginaren zati handi batek lehiarako posizioa hobetzen jarraitzeko borondatea adierazi du, horretarako **berrikuntza inbertsio edo proiektuak eginda**. Aldiz, nazioartekotze ekimen berrien abiaraztea ez da hain ugaria, enpresek nahiago baitute beren baliabideak uneko nazioarteko presentzia sendotzeko erabili.

Oro har, **laneko alderdiak eta alderdi finantzarioak** dira enpresak gehien kezkatzen dituztenak.

**Talentua erakarri eta fidelizatzeko zailtasunak, absentismoa eta laneko kostuak** dira sarrien aipatu diren hazkunderako oztopoak.

Zenbait sektoretan, **lehengai eta azpiosagaien hornidura, prezioen aldakortasuna eta faktore hauek enpresaren errentagarritasunean duten eragina** ere kezka iturri dira.

